

KOSTUAK

Proiektu bat aurrera eramateak hainbat gastu egitea eskatzen du eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du. Kostu horiek ondorengo ezaugarriak izan ditzake; kostu finkoak, kostu aldakorak, eskala ekonomia eta hedapen ekonomia. Kostu finkoak ez dira enpresaren ekoizpenaren arabera aldatzen, hau da, ekoizpena igotzen bada ez dira kostuak igotzen eta ekoizpena jaisten bada ere kostuak mantendu egingo dira beti. Kostu aldakorak berriz, ekoizpenaren arabera kostuak igo edo jaitsi egiten dira.



Kostu finkoei dagokienez, gure enpresan funtsezkoak diren sei osagai sailkatzen dira; lokal fisikoaren alokairua, garraioa eta hotela. Hasteko lokal fisikoaren alokairua, urte osoan zehar egongo gara bidaiak antolatzen bertan eta bezeroekin hitz egiten. Beraz, bezeroekin aurrez aurre hitz egiteko garrantzitsua da lokal hau alokaturik edukitzea. Hilabetero oraindu beharko dugu.

Funtsezko sozietateen atalean azaldu genuen bezala, gure enpresaren funtzionamendu egokirako ezinbestekoa izango da beste enpresa batzuekin elkartzea, adibidez garraioaren arloan. Gure kasuan garraioari dagozkion beharrak asetzeko (esaterako Mallorca eta Ibizara bidaiatzako beharko ditugunak), beste enpresa baten zerbitzuak kontratatuko ditugu. Gastu hau finkoa izan da, beti kostu berdina ordainduko dugulako guztira 50 pertsona joango direlako beti gure bidaira. Vueling hegazkin konpainiak, urtero bidai berdina egiten dugunez pertsona kopuru berdinarekin, beti deskontu berdina aplikatuko digu eta guk bidaiako kostu berdina ordainduko dugu. Horrela guretzat errazagoa izango da garraioaren prezioa kudeatzea, beti berdina izango delako. Antolaketa honen bidez, aipatu bezala gure berezko beharrak asetzea errazagoa izango da kostuak ongi antolatuz gero.

Hotelaren kasuan, ezinbestekoa da Mallorca eta Ibizara joaten garenean, bertan gure bezeroak ostatatuko direlako. Hau kostu finkoa izango da, izan ere, Hotel Barcelo enpresarekin dugun akordioaren ondorioz, pertsona eta gau kopuru berdinak ostatatuko ditugu, eta beti prezio berdinean. Honek erraztuko digu hotelaren prezioa kudeatzea. Hotel



kate honekin akordio egoki bat lortu ezker, bi enpresak onuradunak aterako gara bakoitzak besteari eginiko eskaintzei esker. Gainera, garraioaren moduan ezinbestekoa dugunez enprekin elkartzea, ostatuaren kasuan ere ikaragarritzko garrantzia edukiko du horrela gure bezeroentzako ostatu finko bat edukitzea lortuko dugu eta gure enpresa kudeatzeko errazagoa izango da.

Bestalde, aurrez aurretik enpresa eraikitzen hasteko, 50.000€-ko mailegu bat eskatuko dugu inbertsioak egin ahal izateko, ez dugulako hainbeste diru.

Inbertsioen harira, diru horrekin materiala erosiko dugu. Ordenagailua, telefonoa, inpresora... izango dira behar beharrezko materialak gure enpresan. Horrela, enpresa aurrera aterako dugu eta gure bezeroei ahalik eta produktu hoberena eskainiko diegu. Modu hoberenaren bitartez.

Noski guk ere soldata bat eduki beharko dugu, hori dela eta, gure enpresako kideen soldata enpresa berria denez hasiera batean 1500-1700€ ingurukoa izango da eta denboraren poderioz gure espektatiben barruan enpresa haziko dela pentsatzen dugunez aurrerago soldatak altuagoak izatea espero dugu.

Kostu aldakorrak berriz, hurrengo hauek dira; hasteko argindarra, nahiz eta ez oso aldakorra izan, gure lan kopuruaren araberakoa eta argiaren prezioaren araberakoa izango da. Izan ere, argiaren prezioak edozein momentuetan igo edo jaitsi daiteke.

Horrez gain, monitoreak daude. Hauek ezinbestekoak izango dira adin txikikoak bidaiara joan daitezen, baina ez dira beti beharrezkoak izango. Gerta daiteke bidairaren batean adin txikikorik ez egotea, beraz, kasu horretan ez litzateke monitorerik joango gazteekin gastu hau murriztuz. Bestalde, adin txikiko gazteak bidaiara animatuko balira monitoreak deitzen joango ginake, legeak esaten duenez, 16-18 adintartean dauden 18-20 gazteko monitore bat bidaliko dugu. Eta noski, ezintasun bereziren bat duen pertsonaren bat apuntatuko balitz, beste monitore espezializatu bat joango litzateke. Beraz, argi dago monitoreei ordaindu beharreko soldata oso aldakorra izango dela. Hala ere, beharrezkoak diren monitore bakoiztari, 600€ emango genieke.



Ekintzei dagokionez, gure enpresak eskaintzen duen bidaiaren barruan ekintzak antolatuko ditugu. Gure bezeroen eskuetan egongo da ekintza horietan parte hartu nahi duten ala ez, horregatik, gure enpresarentzat ekintzen gastua aldakorra izango da, ez baitakigu 50 pertsonenatik zenbatek hartuko duten parte ekintzetan, beti kopuru ezberdina izango da eta.

Azkenik, bestelako gastu batzuk ere izango ditugula kontuan hartu behar dugu. Hilean behin ezustekoren batekin topatu dezakegu, eta prest egon behar gara dirua edukitzeko ezustekoa ordaintzeko. Adibidez gure bulegoko inpresora izorratzen bada, segituan konpondu beharko dugu lanean aurrera jarraitzeko.

Jarraian agertzen den taulan gure enpresak lehen hilabeteetan izan ditzakeen diru-sarrereren eta gastuen estimazioa jasotzen da.

DIRU-SARRERAK	KOSTU FINKOAK	KOSTU ALDAKORRAK
-Publiziatea -Bezeroak -Mailegua* 50.000€	-Alokairua -Hotela -Garraioa -Soldata -Inbertsioak -Maileguak	-Argindarra -Monitoreak 600€ -Ekintzak -Bestelako gastuak 200€
<p>GUZTIRA: Diru sarrerak goi denboraldian: Mallorcan: (435x50/330x50) x2= 45.000€/33.000€ Ibizan= (385x50/340x50) x2= 38.500€/ 34.000€ Maximoa: 4.000+ 45.000+ 38.500= 87.500€ Minimo: 4.000 + 33.000 + 34.000= 71.000€</p> <p>Kostu finkoak: Maximoan: Monitoreekin: 87.500-(600x3)- 140-900= 84660€ Monitore gabe: 87.500- 140-900= 86460€</p> <p>Minimoan: Monitoreekin: 71.000- (600x3)-140-900= 68160€ Monitore gabe: 71.000- 140-900= 69960€</p>		

Taulan ikus daitekeen bezala, udarako denboraldian askoz diru gehiago irabaziko dugula estimatzen dugu. Izan ere, askoz bidai gehiago antolatuko ditugu. Aste Santuan eta zubitan ez ditugu hanbeste bidai antolatuko. Hortaz, udarako tenporadan gure soldata nabarmenki



askoz altuagoa izango da. Udarako tenporadan maximo 87.500€ irabaziko dugu eta minimo 71.000€ izango dira. Aurretik aipatu moduan, udarako sasoiez gain, urteko opor eta data berezietan prest egongo gara gure egonaldiak eskaintzeko. Horrela, urtean data gehiagotan eskainiz gero eta etekin handiagoak lortzeko aukera edukiko ditugu gure enpresa aurrera eramateko.

Aztertu berri ditugun kostuak kontuan edukitzea oso garrantzitsua izango da gure enpresa aurrera eramateko. Kontuan eduki behar ditugu gure enpresa aurrera atera ahal izateko hainbat kostu edukiko ditugula eta horiek nahita nahiez ordaindu beharko ditugula. Horregatik, ordaindu beharreko kostuen ideia bat egitea oso komenigarria izango da horrela gutxienez lortu beharrekoa antzemateko aukera izango dugu. Horrela, gure enpresak etekinak eduki ditzake eta lortutako etekin horiek enpresaren hobekuntzan erabiltzeko aukerak edukiko ditugu, gure enpresa pixkanaka hazi dadin. Ondorioz, enpresa hazten doan heinean beti eduki beharko ditugu kontuan kostuak eta hauek bideratu beharko ditugu ahalik eta bide egokienetik.